

GIZARTE ZERBITZUETAKO EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)

2011-1-28ko OSOKO BILKURAKO AKTA

Gasteizen egina (Seminarioa)
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

LEHENDAKARITZA ETA IDAZKARITZA:

- Lehendakaria ez denez bertaratu, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren **jarduneko lehendakaria** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuorde **Fernando Fantova Azcoaga** jauna izan da.
- Kontseiluko lehendakariak izendatuta, **Angel M. Manero González jauna** Gizarte Gaietako Zuzendaritzako Gizarte Gaietako Arloko arduradunak **Idazkari** titular gisa jardun du.

BERTARATU DIREN BOKALAK:

Alfonso Gurpegi Ruiz jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Celina Pereda Riguera andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Gloria Múgica Conde andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Berrikuntza Soziolaboraleko zuzendaria.

Miguel Angel González Martín jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren aholkularia (Laneko Z).

Ana Tellería Echeverría andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko aholkularia.

Pedro M. Zugasti Palomero jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren teknikaria.

Alberto García de Alcaraz Pareja jauna.- Arabako lurralde-ordezkarria (Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saila).

Arantza Elizondo Lopetegi andrea.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia

Amparo Maiztegui Alday andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Jon Etxebarria Orue jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

Juan Ramón Larrañaga Mercero jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen Laguntzako zuzendari nagusia.

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

Ricardo Barkala Zumelzu jauna.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte). Bilboko Udala.

Oscar Seco Revilla jauna.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte). Etxebarriko Udala.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.- EUSKO FEDERPEN (Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioak).

Pablo González jauna. FEVAS (Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioa).

Juan Carlos Sola Guzman jauna.- ELKARTEAN (EAEko Desgaitu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea).

M. Jose Carro Mesías andrea.- FEDEAFES (Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntza).

Natalia Díez Caballero andrea.- (HIRUKIDE) Familia Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Amparo Villar Saenz andrea (Aldarte Elkarte).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundearen ordezkaria.

Miguel Angel Ruiz Díez jauna (Hiesaren aurkako Arabako Batzordea).- Droga-mendetasunaren esparruko erakundearen ordezkaria.

Alberto Ponti (Agintzari Koop E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkartearen Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

Juan Ibarretxe Kareaga jauna (EAPN Euskadi).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Roberto Vidal Failde jauna.- Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Entrepresarien Konfederakuntza).

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO. Euskadi.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEK-ko lehendakaria).

Isabel Muela Lopez andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismoko zuzendaria.

Julene Gabiola andrea.- ELA Sindikatua.

BERTARATU EZ DIREN BOKALAK

Bokal bat Eusko Jaurlaritzaren Kultura alorrekoa.

Bokal bat Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideetako alorrekoa.

Bokal bat Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ekonomia Plangintzako alorrekoa.

Bokal bat Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo alorrekoa.

Bokal bat EAEko Udalen ordezkaria (EUDEL).

Bokal bat Eusko Legebiltzarreko ordezkaria (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Bokal bat LAB sindikatua ordezkatzuz.

Bokal bat UGT Euskadi ordezkatzuz.

Bokal bat Etorkinei laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundeko ordezkaria.

Bokal bat Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkaria.

Bokal bat Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria.

Bokal bat EAEko Zentzumen desgaitasunaren arloko erakundeen ordezkaria

Hiru bokal enpresarien erak. ordezkatzuz (CONFEBASK).

.....

JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2011ko urtarrilaren 28ko goizeko 9:00etan hasi da, Lehendakaritzak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honekin:

1. 2010eko uztailaren 16ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.
2. Telelaguntzako zerbitzu publikoaren dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
3. Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
4. Bitartekarien Erregistroari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena ematea.
5. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren hitzarmen-araubidea arautzen duen dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
6. BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresnari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena ematea.
7. Euskal Autonomia Erkidegoko familia-bitartekaritzako zerbitzu publiko integrala eskuratzeko prozedurari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena ematea.
8. Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako ekimenei buruzko informazioa.
9. EAEko Gizarte Zerbitzuen Egoerari buruzko IX. txostenaren aurkezpena.
10. Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2011rako deialdiari buruzko informazioa.
11. GZEK-ko ordezkari bat izendatzea Kontseilu hau Immigrazio Foroan ordezkatzeko.
12. Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluan ordezkari izateko beste eskaera (Bizkaiko Psikologo Elkargokoa).
13. Galde-eskeak

.....

Gai-zerrenda baino lehenagoko proposamenak.

Jarduneko lehendakariak bertaratu direnei ongietorria egin eta eskerrak eman dizkie eta lehendakariaren eta bertaratzerik izan ez duten beste bokalen ezin etorria adierazi du (Turismoko zuzendari Isabel Muela eta ELAko Julene Gabiola).

Aurreikusitako gai-zerrendan barne hartutako gaiekin hasi baino lehen, aurretiatzko bi gairi ekiten die, bi PROPOSAMEN, eta bilerako Aktan jasota geratzea proposatu du.

1.- PEDRO FERNANDEZ GARCÍAREN OROITZAPEN BEREZIA, iragan abenduan hil baitzen. Pedro Fernandezek FEVAS eta desgaitasun intelektuala duten pertsonak ordezkatu ditu Kontseilu honetan, hainbat eta hainbat urtez. Pedroren jarrera islatu nahi du Elkarrizketa Zibileko Mahaiko azkeneko bileraren Aktatik hartutako hitz batzuen bidez (2011-1-17):

“Bertaratu diren pertsona guztiek Pedro Fernandez gogoratzuz hasi dute bilera; Pedro Fernández duela gutxi hil zen eta FEVAS ordezkatu zuen Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren hasieratik aktiboki eta konpromisoz parte hartuz, baita gizarte-politikari, desgaitasun-egoerei, hirugarren sektoreari eta abarri lotutako beste eremuetan eta laneko prozesuetan ere. Elkarrizketa Zibileko Mahaiko kideak bat datoz haren falta igarriko dela adierazten eta hark parte hartu zuen eta bultzatzen aritu zen lanekin gure aurrera egiteko konpromisoa dakarkigula haren oroitzapenak, haren ideien argitasunarengatik, eta izaera dinamiko, baikor, positibo, proposatzaile eta erabaki- eta adosmen-sustatzailea izateagatik.”

Baina Pedrori eman nahi zaion oroitzapena eta onespena ez da mugatzen haren elkarrizketaren aldeko izaera adiskidetzaillea eta haren izaera edertzen zuten ezaugarriak gorestera. *“Pedrorekin loturiko ideia, proiektu eta lan askok aurrera jarraituko dute, gure esku baitaude. Pedro ez egoteak konpromisoa dakar, helarazten zuen espiritu horrekin jarraitzeko eta hasitako lanarekin aurrera jarraitzeko konpromisoa”*. Hori izango da Kontseilu honek haren oroimenez egin dezakeen eta egingo duen omenaldirik onena.

Gizarte Gaietako sailburuordeak iruzkinak egiteko txanda hasi du:

- **Txema Odrizolak**, FEDERPEN federaziokoak, bere Sareen Sarea foroan Pedro onesten du Elkarrizketa Zibileko ideologo eta lider gisa: *“jarrera oneko gizona zen, adiskidetzaillea, ideiak zituena, inoiz ez zen asaldatzen, beti lasaitasunaren aldekoa, eta beti nahi zuen adostasuna lortu. Niri oroitzapen ezabagaitza utzi dit eta haren ideiek indarrean jarraituko dute gure lan guztietan. Aparteko gizona zen”*.
- **Pablo Gonzalezek**, FEVAS federaziokoak, esandakoa berretsi du *“FEVASeko jendearentzat, esan den hori guztiaz gain, egia izanik ere, laguna galdu dugula sentitzen dugu”* azpimarratuz. Kontseiluaren sarrera hori eta hitz horiek eskertu ditu, mereziak baitira.
- **Amparo Maizteguik**, AFAkoak, adierazi du Arabako Administrazioak Pedrorekin izan duen harremana Euskal Kontseiluen bidez izan dela, *“eta beti zirrara sorrarazi didatela haren jarrera onak eta haren pentsatzeko moduak. Pertsona oso hurbila, dinamikoa, adiskidetzaillea zen, eta beti zebilen akordioen bila. Eta batez ere, atentzio handia ematen zidan haren irribarreak”*.

Osoko Bilkurak, aho batez, onespen hori eta Pedro Fernándezen eredia eta lana eskertzeko adierazpena Aktan jasotzeko proposamena onartu dute.

2.- GAI ZERRENDAKO 5. PUNTUA EZABATZEA, posta elektronikoz aldeztu aurretik esan genuen eran. Kontzertu-erregimena arautzen duen dekretuaren nahitaezko txostena ez egitea da proposamena, betiere Eusko Jaurlaritzara iritsitako iritzia araberako, ahalegina egiteak eta testu hori sakonago jorrotzeko merezi zuelako –batez ere hirugarren sektoreko entitateen aldetik- .

Fernando Fantovak onartu du testuren baten nahitaezko txostena egiteak ez dakarrela itxiztat ematea, inondik inora, ezta txosten hori egin bada ere. Izan ere, dekretu batek duen izapidetze konplexuan, zenbait nahitaezko txosten, alegazio eta gainerako barne-txosten bilduz, GZEKren txostena beste horiek baino lehen edo horien ondoren sartuko da, eta Kontseiluaren txostena aldekoa izan bada ere, dekretuaren txostenak lan egiteko zabalik jarraituko luke oraindik ere.

Kasu horretan zehazki, *“Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren hileko bileren esparruan zenbait entitatek hitzez proposatu zuten, eta hor iragan asteazkenean bildu zen (26-1-2011) Erakunde Arteko Organoaren aurrean proposamen hori egiteko konpromisoa hartu genuen. Organoak onartu zuen nahitaezko txostena ez egitea eta horren ondorioz ez da kontzertu-dekretuaren txosten hori egin –gainerako dekretuena egin da- eta beraz txanda bat hasiko dugu badaezpada, inork objekzioak izan ditzakeelakoan. Hasteko, Kontseiluari objekzio bat helarazi diote, ELAko ordezkariak zehazki, ezin izan baita bertaratu, baina gai-zerrendatik kentzearekin ados ez zegoela aktan jasota egotea nahi zuen”*. Baina egia esan, hasiera batean zentzu horretan Hirugarren Sektorereko entitateek eta Erakundeek akordioa bazutela aurreikusteko moduko gisa ikusten zen, ez zuen ematen aldatuko zenik. *“Baina, nolana ere, aztertu behar dugu eta, beraz, gai-zerrendatik puntu hori kentzearekin norbait ados ez ote den galdetu”*.

Proposamen hori Osoko Bilkurak aztertu eta baiezkoa emanez onartu du, ELA sindikatuko ordezkariaren mezuan jasotako objekzioarekin edo aurkako botoarekin. Horrenbestez, gai-zerrendatik 5. puntua kenduko da.

Horren ondoren, gai-zerrendan jasotako puntuak jorratzen hasi dira.

1. puntua. *2010eko uztailaren 16ko Osoko Bilkurari dagokion akta onartzea.*

Bidalitako txostenari oharririk egin ez zaionez, 2010eko uztailaren 16an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

Nahitaezko txostenei buruz 2., 3., 4., 6. eta 7. puntuen aurretik egindako oharra.

Gai-zerrendako bost puntu horiei dagokienez (Kontseiluak Nahitaezko Txostenak egiteari buruzkoak horiek guztiak), Gizarte Gaietako sailburuordeak osoko bilkurako azken bileretan erabiltzen ari diren jardunbideak gogorarazi ditu, hau da, hitza hartzeko txanda bati hasiera eman zaio eta Kontseiluaren Aktaren zati hori (proiektu edo dekretu-zirriborro bakoitzari buruz egin nahi diren iruzkinak, objekzioak, oharrak eta abar azaltzen dituen) nahitaezko txostena izango da espedientearen barruan. *“Norbaitek bozkatzeko proposatzen ez badu –alde edo aurka- beharrezkoa ez dela hartuko dugu kontuan, eta objekzioak jasotzea nahikoa izango litzateke. Oraindik erantzun ez diren alegazioak egotea gerta liteke, Erakunde arteko Organoan gertatu zen bezala, eta kasu horretan, edo hitzez berretsi daitezke edo alegazio horiei buruzko aipamena egin daiteke, alegazio horiek aktan edo nahitaezko txostenean jasota geratzeko”*.

Testuinguru horretan, Alfonso Gurpegui Gizarte Gaietako zuzendariaren dekretu bakoitzaren aurkezpen labur bat egitea izango da dinamika, eta horren ondoren hitz egiteko txanda bat hasiko da.

2. puntua.- *Telelaguntzako zerbitzu publikoaren dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.*

- **Alfonso Gurpegui**, gogorarazi du telelaguntzako zerbitzua jarduneko urtetik hasita Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko duela.

Orain zerbitzua garatzen ari diren erakundeek, hau da, hiru Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, kudeaketa esleitzeko akordio batzuk aurrekusi dituzte 2011ko urtarrilaren 1etik, eta uztailaren 1etik Jaurlaritzak zuzenean kudeatzeko aurreikuspena ere egiten dute. Sarbide-prozedurak, xede-publikoa eta abar definitzen dituen zerbitzuaren dekretu arautzaile bat eskatzen du horrek eta baterako ordainketa arautzeko beste dekretu bat eskatzen du. Kontseiluak aztertzeko gaur ekarri dena uztailaren 1ean martxan jarriko den zerbitzua arautzeko dekretua da.

Gaur bokalek eskura duten testuan zenbait aldaketa daude, izan ere erakundeek aurkeztutako alegazioetako batzuk kontuan hartu dira. Aldatutako elementu horien artean hartzaileei dagokiena azpimarratu behar da, horien espektra asko zabaldu baita, “gizarte-isolamenduaren” profila orain bilduz (adina kontuan hartu gabe), betiere oinarritzko gizarte-zerbitzuen nahitaezko txostenarekin.

Sarbide-prozedurari dagokionez, Jaurlaritzaren asmoa prozedura irekia izatea dela adierazi du, hau da, “*ez daitezela soilik oinarritzko gizarte-zerbitzuak izan hartzaileen eskaerak helarazten dizkigutenak (gizarte-txostena eskatzen den kasuetan bai, nahitaez) baina oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik ez pasatu behar izateko aukerarik egotea dekretuan ezartzen diren betekizunak betez*”. Helburua gizarte-zerbitzuei lan gehiegi ez ematea da ez badute espedientea ebazteko informazio esanguratsurik ekartzen (mediku-txostena mendetasun-txostena nahikoa izan litekeen mendetasun-egoerei buruz).

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** txanda bat hasi du Osoko Bilkurara bertaratu direnek aurkeztutako testuari buruz nahi dutena azal dezaten:

- **Gotzon Villañok**, EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialen ordezkariak, 6. artikuluari dagokionez (“zerbitzuaren edukia”), prestazioak zehazten dituen, horien artean “*erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeen oraingo gizarte-baliabideei buruzko informazioa eta, hala badagokio, gizarte-laguntzako oinarritzko baliabideetarako orientabidea*” aipatu du (2. puntua, e letra), eta gero gizarte-bazterkeriako arrisku-egoeran dauden erabiltzaileen kasuan “*aldizkako jarraipena etxean*” (f letra), agenden kudeaketa, egiteko jardueren origarria eta abar burutuko dela aipatu du. Puntu horretan, galdera da zer motatako profesionalak egingo duten lan hori, dekretuan ez baita horri buruzko ezer zehazten.

- **Alfonso Gurpeguik** erantzun du gizarte-bisiten kasuan “*gizarte-langileak izango direla. Eta orain lurralde batzuetan dagoena baino zabalagoa den zorro bat sartzeak lau zerbitzu bereiziak bildu behar izatea ekarri du (hau da, hiru lurraldeetan eta Gasteizko Udalean) artatutako biztanleriaren ehunekoen estaldura ezberdina zituztenak, lau horietan oso ezberdina baita, eta zerbitzuen zorro ezberdinarekin ere*”.

Beti goitik berdintzekoa izaten da joera baina kasu horretan bisitak asko mugatuko dira, gizarte-isolamenduko egoera horiek artatzeko, funtsezko lana oinarritzko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan izen beharko duela kontuan hartuz, horiek baitira lan hori egin behar dutenak. “Kontua da hasierako egoera batetik abiatzen zela etxeko bisita horiek badauden lurralde batean, eta barnean hartzeko beharra ikusten genuen horrenbestez, hori bai, oso egoera espezifikoetara mugatuz, eta hori oinarritzko gizarte-zerbitzuetara pixkanaka aldatu behar dela kontuan hartuz, horiek baitira etxetik etxe lan egin behar dutenak.

- **Gotzon Villañok** galdetu du –aurreko txandan ia erantzun zaiola onartzen badu ere– non aurkeztu ahalko diren eskaerak.

- **Alfonso Gurpeguik** oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aurkez daitezkeela zehaztu du, baina “Zuzenean” zerbitzuaren bidez eta, telematikoki, etxetik ere bai, aplikazio informatiko batekin.

- AFAko **Amparo Maizteguik** dekretuaren proposamenari zenbait ekarpen egin zizkiotela argitu du. “Erakunde arteko Organoan jadanik esan zen agian ia guztiak kontuan hartuko zirela”. Eta zentzu horretan, komenigarria dela uste du horiek aipatzea Kontseiluko gainerako kideek ekarpenak zeintzuk diren jakiteko:

1.- Zerbitzu hori partekatutako ostatuetan ere ezartzeko aukera aztertu zuten, “*kasu horietan, ostatu motaren arabera ez baitzegoen gaueko langilerik, baliabide interesgarria iruditzen zitzaizun eta gu erabiltzen ari ginen*”.

2.- Desgaitasun intelektuala eta III. graduko mendetasuna duten pertsonak baztertzeko 8. artikulua ere aipatzen zuen, honako hau adieraziz “*askotan III. gradura desgaitasun fisiko batengatik heltzen da, ez desgaitasun intelektual batengatik*”. Beraz, ona litzateke desgaitasun intelektuala duten pertsona horiek prestazio horretarako eskubidea izatea.

3. Gizarte-isolamenduaren gaia ere aipatu du (Alfonso Gurpeguik jadanik aipatu du dekretura bildu dela), eta azkenik “errolatzeari” buruzko 9.1 artikuluari buruz zeukan zalantza bat adierazi du, antza iraganaren aipamena egiten duena, eta horren arabera gerta liteke errolatutako pertsona batek eskubidea izatea ere pentsatzea, baina argi geratu behar du zerbitzua ematen zaion unean egoiliarra izan behar dela.

4.- Azkenik, Jaurlaritzak azaldu ziena argi utziko zuen Xedapen Iragankor (berri) bat idaztea proposatzen zuten, orain foru-aldundiek prestazioa kudeatzen jarraituko duten bitarteko aldi bat baitago, ordezkari bidez egiten zutela jasota eta argi gera zedin, eta zerbitzuaren kostu osoaren finantzaketa –lurralde bakoitzari eta Gasteizko Udalarari kostatzen zaiona- Jaurlaritzak bere gain har dezan.

- **Jon Etxebarria** Bizkaiko Foru Aldundikoa, Arabako Foru Aldundiko ordezkariak esandakoari atxiki zaio.

Jarduneko lehendakariak, txanda gehiago ez dagoenez, telelaguntzako zerbitzu publikoaren dekretu-proiektuari buruzko GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

3. puntua.- Telelaguntzako zerbitzu publikoaren dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.

- **Alfonso Gurpeguik** azaldu du Behatokia Gizarte Zerbitzuen Legean azaltzen den tresna bat dela. Behatoki hori Sail honetan sustatzen ari diren gizarte-zerbitzuetako behatoki berrantolaketa orokorraren barnean hartuta dago. Hori guztia horietako bakoitzaren autonomia eta independentzia errespetatuz dagozkien legeen arabera: Familien Behatokia; Immigrazioaren Behatokia; Haurren eta Nerabeen Behatokia, eta Gizarte Zerbitzuenarekin batera. Batzuek eta besteek partekatzen dituzten alderdien azterketako eta ikerketako gorpuz komuna zehaztea komeni da, horietako bakoitzaren alderdi propio eta partikularrekin batera.

Behatoki arteko koordinazio-prozesu hori martxan dagoen beste prozesu bati lotuta dago, Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistemaren eraikuntzari, alegia. Eraikuntza horren barnean, 2010. urtearen amaieran Sistema horretarako hiru azpiproiektu egitea esleitu da, eta aipatu den guztia antolatzearekin zerikusia duen laugarrena ere behatoki bakoitzaren informazioaren, iturrien, adierazleen balioztatzeen, eta abarren tratamenduari buruz.

Horrek guztiak gizarte-gaietako behatokiaren erakuntzarekin zerikusia badu ere, Osoko Bilkura honetan gaur aurkezten dena Gizarte Zerbitzuetako Behatokiaren erregulazioa da (bakuna eta beste behatokiaren antzekoa). Erakunde arteko Organoan gaur aurkezten den testuari buruzko ekarpen batzuk ere egin zirela gogorarazi du, eta horien artean funtzioei buruzkoa azpimarratu du: “Gizarte-zerbitzuen eremuan administrazio publikoaren ekimenak balioetsi” (6.b artikuluan)

Balioesteko funtzioa Goi Ikuskaritzaren beraren funtzioa zela uste zen –eta Jaurlaritzak ere onartu zuen-, eta hori laster martxan jarriko den beste organo bat da –testuan jasotzen den balioespena, “teknikoa” bazen ere.

Baina funtzioen eskumenetan disfuntzioak edo bikoiztasunak saihesteko, “balioetsi” terminoaren beste idazketa bat bilatu zen, jarraipenaren edo alderdi zehazten balioespenaren zentzuan (adierazleak, esaterako), baina Administrazio publikoaren balioespenak funtsean Goi ikuskaritzari dagozkiola argi utziz eta ez behatokiari.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** aurkeztutako dekretu-proposamenari buruz hitz egiteko txanda hasi du (iritziak, oharrak, iruzkinak eta abar):
- **Jon Etxebarriak**, BFAkoak, Alfonso Gurpeguik azaldu duenarekin adostasuna islatu du, baina ez daki testuaren azken idazketa zein den.
- **Alfonso Gurpeguik** ñabartu du ez duela nahiko denbora izan ekarpen horiek aldatu eta eransteko (Erakunde arteko Organoa bi egun lehenago egin baitzen), baina esan duen bezala, ideia hartu du eta dekretuan jasoko da.

Jarduneko lehendakariak, txanda gehiago ez dagoenez, Gizarte Zerbitzuetako Behatokiaren dekretu-proiektuari buruzko GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

4. puntua.- Bitartekarien Erregistroaren Dekretu-proiektuari buruzko nahitaezko txostena.

- **Alfonso Gurpeguik** lehen Kontseilu honetara izenburu bereko dekretu bat ekarri zela gogorarazi du (1). Familia Bitartekaritzako Legeak arautegi bidezko garapen gisa ezarri ditu Bitartekarien Erregistroaren Erregulazioa zein familia-bitartekaritza gaiko berariazko prestakuntza. Hasteko dekretuaren bi proposamen landu ziren baina laster ikusi zen bi gaietara batera ekitea beharrezkoa zela, zuzenean lotuta daudelako (bitartekari bat erregistratzeko berariazko prestakuntzaren betekizuna betetzen zuela egiaztatua egon behar zen). Beraz, izapide hori hasi bazen ere, gero gai horrengatik eta tartean Europako Zerbitzuen Zuzentaraua eta Omnibus Legea sortu zirelako gelditu zen (Europako zuzentarau hori aplikatzeko horrek zenbait lege hartzen zituen eraginpean zerbitzuak liberalizatzeke).

Hortaz, egoera horretan, familia-bitartekaritzan Zerbitzuen Zuzentarauaren betekizunak zein berariazko prestakuntza jasotzen zituen erregistro berria lantzeko erabakia hartu zen (edukia, ikastaroen homologazioa eta abar). Hori da gaur Kontseilura ekarri den dekretua.

Gizarte Gaietako sailburuordeak txanda bat hasi du (galderak, oharrak eta abar) aurkeztutako proposamenari buruz, eta inork ezer adierazi ez duenez, Bitartekarien Erregistroaren dekretu-proiektuari buruz GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

1). **Idazkaritzako oharra:** ikus 2009ko urriaren 30eko GZEKren Osoko Bilkuraren gai-zerrendako 5. puntua “Bitartekarien Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Dekretuaren gaineko aginduzko txostena”.

6. puntua *BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresnari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena.*

• **Alfonso Gurpeguik**, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak, Dekretua oso bakuna dela aitortu du eduki nagusia arrisku- eta babesgabezia-egoeren balioespenerako tresna da (BALORA); hori ERANSKINEAN jasota dago eta dekretu honen bidez onartu da.

Tresna hori iragan urte osoan zehar aplikatu da (esperimentalki urrira arte). Hortik aurrera, Batzorde Teknikoa bildu eta urtebetez aplikazio esperimental horretatik eratorritako aldaketak jasotzeari ekin zion, horiek balioztatuz eta bidali den BALORA dokumentu berrian barne hartuz. Maila teknikoan eta politikoan tresna horrekiko oso akordio zabala izan dela hartu du kontuan.

• **Amparo Maiztegui**, Bizkaiko Foru Aldundikoa, bat dator oso lan trinkoa egin dela esanez, ikuspuntu teknikoak eta adostasun handiarekin. Logikoki, beti daude barnean hartzen ez diren gai edo ñabardurak (esku-hartze generalista bat egin behar delako), baina benetan gogobeteta daude esparru teknikoan.

Jarduneko lehendakariak, txanda gehiago ez dagoenez, BALORA tresnaren dekretu-proiektuari buruzko GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

7. puntua.- *Euskal Autonomia Erkidegoko familia-bitartekaritzako zerbitzu publiko integrala eskuratzeko prozedurari buruzko dekretu-proiektuaren gaineko nahitaezko txostena.*

• **Alfonso Gurpeguik** azaldu du familia-bitartekaritzaren legea onartu zenetik Jaurlaritzari dagokiola familia-bitartekaritzako hiru zerbitzuen ardura (hiru lurraldeetan).

Hortaz, aurreko urteetan bezala, 2010ean Bizkaiko zerbitzuaren prestazioak Eusko Jaurlaritzaren mende jarraitu du. Araban, Gasteizko Udalarekin akordio bat lortu zen hiriko bitartekaritzako zerbitzua Arabako Lurralde Historiko osora zabaltzeko. Eta Gipuzkoan, lehiaketaren esleipena egin zen familia-bitartekaritzako zerbitzua emateko, eta horren ondoren zerbitzua ekainaren amaiera aldera hasi zen.

Horrekin familia-bitartekaritzako zerbitzuen oinarriko edo hasierako mapa estali zen, “*baina familia-bitartekaritzako zerbitzuetarako sarbide administratiboa arautzeko beharra ikusi genuen. Sarbide-sistema bakun bat diseinatu dugu hiru zerbitzuek sarbide-prozedura bera izan dezaten*”. Administrazio-prozedurak familia-bitartekaritza bera eragotzi ez dezan ere kontu berezia izan da (gai hori kontuz ibiltzekoa da eta hor azaldu behar da alderdien borondatea), hau da, administrazio betekizunek (eskaerako sinaduraren, ebazpeneko epeen eta abarren betekizunak) erabiltzaileek bitartekaritza-prestazio hori lortzeko helbururako oztoporik ez izatea.

Laburbilduz, “*babesten gaituen prozedura bat garatzen saiatu gara, alde batetik, gai administratiboa, hau da, familia-bitartekaritzako zerbitzuetara jotzen duten guztiek zerbitzu-esleipeneko administrazio-ebazpen batekin egin dezatela, Administrazioak ematen dituen zerbitzu guztiekin bezalaxe, eta aldi berean, horrek ez diezagula oztopatu familia-bitartekaritzako lan profesionala. Hori lortu dugula uste dut, bitartekaritzako profesionalekin diseinatu eta idatzi dugula, eta hona dakarguna familia-bitartekaritzako zerbitzuetarako sarbidearen administrazio-ebazpeneko prozedura hori da*”.

Gizarte Gaietako sailburuordeak txanda bat hasi du (galderak, oharrak, iruzkinak eta abar) aurkeztutako proposamenari buruz eta inork ezer adierazi ez duenez, EAEko familia-bitartekaritzako zerbitzu publiko osorako sarbide-prozeduraren dekretu-proiektuari buruz GZEKren nahitaezko txostena emandakotzat jo du.

8. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako ekimenei buruzko informazioa.

• **Jarduneko lehendakariak** Kontseiluetan sartzen den puntu honi buruz, bertaratu direnei gai horren egoeraren berri emateko interesa aipatu du. Gizarte Zerbitzuen legean aurreikusitakoaren martxari errepaso bat eman behar zaio. Berrikuspen hori bilerako beste kideek zabal dezakete, noski (bakoitzak bere ikuspegitik, bere ñabardurekin, iruzkinekin eta abar). Zenbait puntutan, gaur emandako dokumentuan azaltzen den informazioa baino zertxobait gehiago egingo du aurrera (karpetaren barnean), izan ere, iragan asteazkenean Erakunde arteko Organoaren bilera izan zuten. Hori guztia hemen dauden eta Organoaren bilera ere egon ziren pertsonen laguntzarekin.

1.- Erakunde arteko Organoa Bi bilera egin ditu (2010eko ekaina eta 2011ko urtarrila).

2.- Goi-ikuskaritza. Jadanik baditu erregulazioa eta 2011ko aurrekontuak, eta aurtengo 1. hiruhilekoan bere lanak astea aurreikusten da.

3.- Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa. Erakunde arteko Mahai politiko eta teknikoaren lan-prozesuak aurrera jarraitzen du, eta gero langileei pasatzen zaizkien fitxen sorta batekin ari da lanean (akordioaren zenbait fasetan). Langile horiei dagokienez, ekarpenak egin ahal izateko eskari bat zegoen neurrian ekarpenak egin ahal izateko metodologia bat arbitratu zen, baita erakundearen aldetik eman ez diren fitxen alderdiari buruz ere, baina aurretiazko zirriborrorik gabe.

Sailean eta Erakunde arteko Organoan lanaren martxari buruzko "ebaluazioa" egin nahi izan dute. Prozesuari dagokionez, Organoaren Deklarazioan jasotako akordio- eta adostasun-izaera aipatzen du, atazaren konplexutasuna dela-eta dagoen atzerapenaz jabeturik. Atzerapen horiek saihesteko (eta are gehiago datozen udal- eta foru- hauteskundearen aurrean), zorroko alderdi nagusiak edo giltzak politikoki adostu nahi dituzte, bitartean izapidetze formalak ahalbidetuz.

Akordioak zuhurtzian eta neurritasun ekonomikoan oinarritzeko beharra adierazi du, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak erabakien balioespen ekonomikoko tresna bat baliatzeko garrantzia azpimarratu du zorroaren eremuan erabaki batzuk edo beste hartzeak ekar dezakeena leuntzeko.

4.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa. Maparen zatia Zorroari askoz lotuago eta lehen aipatu den azterlan ekonomiko horri askoz lotuago dagoen zatia da. Hala ere, diagnostikoak, helburuak eta estrategiak jasotzen dituen lehen zatia dago eta jaso ditugun alegazioen arabera, behintzat, akordio batera heltzea errazagoa dela hartzen da kontuan. Horren ondorioz, Mapa onartzeko saioa aztertzen ari dira, bi alditan. Eduki ekonomikorik gabeko neurrien beste lehen zati bat (orientabide estrategikoak eta abar) eta beste aldetik, Zorroaren edukari lotuago (prestazio ekonomikoak). Hori da Erakunde arteko Organoan egin zen proposamena.

5.- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Sistema. Jadanik I. fasea egin da (Analisia, diseinua eta Sistemaren Eraikuntza) eta loteak esleitu dira (lehiaketa publikoa) 2010ean zein 2011n.

6.- Telelaguntzako zerbitzu publikoa. Zerbitzu horren proiektua jorratu da eta kudeaketa-mandatuaren oraingo fasearen ondoren, uztaierako Eusko Jaurlaritzak kudeatzea aurreikusten da. Osasun Sailarekin lankidetzan ari dira sistema antolatzen, eta Sailarekin gaixo kronikoekiko arreta adostea da horren alderdi esanguratsu eta garrantzitsua, baita orokorrean biztanleriarekiko arreta ere; arreta hori emateko zerbitzu birtualak era garrantzitsuan sendotzea da bidea, eta telelaguntza estrategia eta plataforma horretan biltzeko aukera aparta ematen du horrek.

7.- Gizarte Zerbitzuen Behatokia. Gizarte Zerbitzuetako lau behatoki en alderdi operatiboa antolatzen ari dira; eta gaur dekretu arautzailearen nahitaezko txostena eman da.

8.- Familia Bitartekaritzako zerbitzu publikoa. Erakunde arteko Organoari jakinarazi zitzaionez, 2012an Familia Bitartekaritzako zerbitzu horien kudeaketa bere gain hartu ahal izatea da gure asmoa Jaurlaritza gisa, baita Familia Elkarguneenak ere, kasu batzuetan dauden kudeaketa-mandatuen oraingo fase hau gaindituz.

9.- Kontzertu Araubidea Batez ere erakundeenak ziren ekarpenak biltzen zituen lehen zirriborro bat egin zen; izapidetzea hasi zen eta erakunde gehienen eta entitateen alegazioak ditugu (kasu batzuetan entitate horietako batzuek landuta) eta asmoa orain, alegazio horiek ezagutu eta gero, negoziazioko eta lan biziagoko aldi bat hastea da, alderdi guztientzat asegarria den akordio bat lortzeko.

10.- Balioespeneko tresna teknikoak. Gaur, dekretuaren (BALORA) nahitaezko txostena eman da eta bazterkeria-egoeren balioespeneko tresna teknikoak jorrazten lanean ari dira erakundeekin, proposamen bat aurkeztu zaien aldi berean, Mendetasuna Balioesteko Baremoaren (MBB) aplikaziotik aurrera.

11.- Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa. Dekretu-zirriborro bat bidali zaie jadanik, eta datuak, ehunekoak eta abar zehazteko azterlan bat jasotzeko daude Jaurlaritzan gero erakundeei aurkezteko.

12.- Gizarteko esku-hartzearen eremuan diru-laguntzen jardueraren berrantolamendua. Gai-zerrendako dagokion puntuan aipatuko da (10 puntua). 2010ean berrantolaketa bat egin zen, dekretu bakarra landuz, eta horren babesean 2011rako dagokion Agindua argitaratuta dago (2011-1-10). Eta Udalen Agindua izapidetze fase aurreratuan dago.

13.- Koordinazio Soziosanitarioa. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren dekretu arautzailea izapidetzen ari da (Aholku Batzorde Juridikora bidalita); gainera, erakundeen artean adostutako 2 dokumentu daude, batek txosten soziosanitarioarekin zerikusia du eta besteak Arreta goiztiarrekin, eta Aholku Batzorde Juridikoaren aurreko formatuarekin, hau da, dekretuaren aurrekoarekin, datozen asteetan egin nahi den bilera batean hobetsi beharko dira.

14. eta 15. puntuak (Familia Elkarguneak eta Gizarte Zerbitzuen Erregistroa), hitz egin dugu horiei buruz lehen.

16.- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen. Foru Aldundientzako proposamen bat dago dekretuaren eskakizunetara egokitzeko epea zabaltzeko eskatuz. Erakunde arteko Organoaren bileran, horri dagokionez, beste bide bat egon zitekeela ikusten zen, eta hori dekretua aldatzea zen (hau da, dekretuan oker ikusitakoa zuzentzea, baina ez oraingo betearazpena atzeratzea). Foru Aldundiek proposamen bateratu bat egingo dute sartu nahi dituzten aldatetekin. Eta dekretu honetatik eratortzen diren protokoloetan ere ari dira lanean (Justizia Sailaren mendeko diren horietako bi salbu).

17.- ECAren homologazio-dekretua eta prozedurak. Urtarrilean Aholku Batzorde Juridikora behin betiko testua bidaliko da.

18.- Gizarte-gastua. Hori da gai nagusietako bat, eta horretan ikusi dute inplikaturako erakunde guztiek elkarrekin bakoitzaren Ekonomia eta Ogasun Sailekin lan egiteko beharra.

Hala, Eusko Jaurlaritzaren barnean Sailen arteko Batzorde bat osatu da, aipaturiko Ekonomia eta Ogasun Saila eta Osasun eta Kontsumo Saila ere biltzen dituena, ebaluatzen diren agertoki ekonomikoek horien partaidetza izateko.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** hitza hartzeko txanda hasi du, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarentzat zein erakundeetako gainerako ordezkariarentzat, bereziki Jaurlaritzaren eta Erakunde arteko Organoaren jardunari buruzko gairen bat zehaztu nahi badute, eta azkenik Osoko Bilkurako gainerako kideentzako txanda ireki bat:

- **Alfonso Gurpeguik**, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak Erregistroaren Dekretuari buruz lan teknikoa hasi dela zehaztu du foru-erregistroarekin, "Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorren" dekretu arautzailea jorrazteko (autonomia-erkidegoko esparruan).

- **Amparo Maizteguik**, Arabako Foru Aldundikoak, izapidetu diren dekretuen zirriborroak baliatzeko eskatu du, esaterako Aholku Batzorde Juridikora bidali aurretiko Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena, azken idazketa ezagutzeko.

- **Alfonso Gurpeguik**, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren dekretuari buruz, testuaren aldaketaren bat izan dela jakinarazi du, Osasun Sailaren oharren bat jaso baita. Ez du arazorik ikusten testua bidaltzeko azken oharrekin. Gai horri buruz, dekretuaren garapen-prozesuan lan egin eta ekarpenak ekarri dituzten erakunde eta organizazio guztiei bere onespena azaltzeko aprobeztatu nahi du.

- **Txema Odriozolak** Aktan jasota geratzea nahi du bere federazioaren (FEDERPEN) atsekabea Plan Estrategikoari ekarpenak eta alegazioak eginez dokumentu zabala (15 orri ingurukoa) aurkeztu ziotelako Arreta Soziosanitarioko Kontseiluari, eta kontuan hartu ez direla iruditzen zaio. Ekarpenak egiteko oraingo prozeduraren kezu da, hainbeste txosten eta zirriborroekin jarraipena egitea oso zaila baita. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari zer zati onartzen diren eta zer zati ez ohartarazteko eskatzen du, "*bestela lan egiteko gogoak kentzen baitzaizkigu*".

Era berean, Arreta Kontseiluari buruz hori deitoratzen du, izan ere, "*langileek parte hartzeko behin eta berriz eskatu dugu, egiaztatu baitugu Jaurlaritzak, bere jarreraz, ez duela interesik hirugarren sektoreak parte har dezan. Gai horren tratamendua instituzionala da erabat (Gizarte Gaietako eta Osasuneko Sailak) baina ordezkatzun dugun adineko pertsonak oso larriki eraginpean hartzen ditu. Kronikoentzako arretari buruz ari dira hitz egiten, orokorrean zenbait gaixotasun baitituzte, "eta ez digute entzuten. Prentsa adinekoentzako eta kronikoentzako arretari buruz eta zerbitzuak birmoldatzeari buruz ari da hitz egiten, eta oraindik ez dugu gutxieneko azalpen bat ere jaso"*.

Bezperako Erakunde arteko Organoaren bileran landutakoari buruzko Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariaren balioespena jasotzen zuen prentsako informazioa ere aipatu du (Diario Vasco, urtarrilaren 27an); horren arabera, gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzko zalantzak sortzen zituen, gaia atzeratuta zegoen, "*ez dakit gai hori jorratu ote duzuen*".

- **Juan Ramón Larrañagak**, Gipuzkoako Foru Aldundikoak, berak ere El Diario irakurri zuela erantzun du eta zentzu horretan ez zuen balioespenik ohartu (gauzak gaizki daudenik edo alderdi negatiboak daudenik). Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak gai ekonomikoari ekiteko beharra azpimarratzen zuen.

- **Fernando Fantovak** gai hori argitu du, erakunde bakoitzak landutakoa bakoitzaren profiletik interpretatu zutela-eta Organoaren bilera amaitzean bertaratu zirenen adierazpenak esanez, eta horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak (Maite Etxaniz) organoan adierazi zuen gauza bera adierazi zion prentsari: "*finantzaketaren gaiarekin buru-belarri ekin beharra dago, urte-amaieran ekarpenen legearen onarpena dagoela-eta, urrian Herri Dirubideen Euskal Kontseilua dagoela-eta, eta abar*".

Azken batean, zerbitzuak finantzatu ahal izateko opatu zuten (amultsutasun-giroan eta desadostasunik gabeko bilera batean), -gai horrek denok kezkatzen gaitu- eta beraz, herriaren finantzaketako esparru orokorrean gizarte-zerbitzuetarako txertatzeko toki bat aurkitzeko. *“Gertatzen dena da aldi berean zenbait eztabaida egiten ari direla, alde batetik erakundeen arteko ardura-banaketarena, eta bestetik eztabaida fiskala eta iraunkortasunaren edo finantzaketaren gure eztabaida, errealitate soziodemografikoa dela-eta hazten ari den eremuan, hala nola gizarte-zerbitzuenean”*. Esparru horretan, Organoan esaten dena da erakunde guztiak eta Sektore osoa ados egonik datozen dokumentu *“zorrotzak”* egoteko ahalegin handiena egin behar dela Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan, eta dokumentu horietan –zuhurtasunarekin eta gizarte-zerbitzuen legea betez- zer izan behar duen denek kontuan hartzen dutena jaso behar da.

- **Txema Odriozolak** biztanleriaren nolabaiteko mesfidantza aipatu du: *“gizarte-zerbitzuen mozketaz, iraunkortasunaren arazoaz, baterako ordainketaz hitz egiten da”*. Hori da prentsak argitaratutako informazioan bere ustez ikusi zuena.

- **Fernando Fantovak** Txema Odriozolak azaldutako beste gai horri buruz, lehengo aldietako ildo berean erantzun dio: ez da Koordinazio Soziosanitarioko Plan Estrategiko bat onartu.

Egin dena da, soilik, koordinazio soziosanitarioko egitura aldatzeko ideia argia zegoen heinean, *“dekretua aldatu behar izan dugu”*. Bi Sailek (Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak) koordinazio soziosanitarioa asimetrikoa zela uste zuten, edo gai soziosanitarioa beste alderdiarena zelako, edo Osasuna foru-aldundiekin zelako ikuspegia transmititzen zuela ere, baina ez Sistemarekin.

Bere ideiarekin abiapuntua da gizarte-zerbitzuetako sistema bat dela, horren Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako ardurekin, lehen arretako koordinazio soziosanitarioa funtsezkoa baita, eta beste aldean Osasun Saila dago. *“Dekretua lantzerakoan, bi sistemetako bakoitzak beren organoak eta partaidetza-sistemak dituela ulertu dugu. Beraz, orain Kontseilua koordinazio baten antolaketa operatiboa da soilik, ahal bezain trebe eta praktikoa. Beraz, jendea gonbida daiteke, baina borondatea, kontsulta edo partaidetza bi sistemen barnean azalduko litzakete. Hortik azaleratzen da, eta Kontseiluaz hitz egiten dugunean, koordinazioa gehiago egokitzen da erakunde arteko esparrura”*.

Hori da bere ikuspegia, Txema Odriozolak azaldutakoa erabat zilegizkotzat onartuta ere. Hortaz, dekretuaren aldaketa zorrotza egiten ari diren denboran, bi Sail inplikaturako egonik, ekarpenak jaso dituen Egoera Txostenari buruz egin da lan; baina egia da ez dela alegazioen izapide bat eta abar dituen dekretu bat bezala. Eta txosten hori izango da oinarria, hor ekarpenak eta Federpenek eskatzen zuen laneko plana egin ahal izateko (kontseilu berri hasiko denean).

9. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuen Egoerari buruzko IX. txostenaren aurkezpena.

- **Alfonso Gurpeguik** adierazi du Txostena gaur eman den CD-an jasota dagoela (karpeta barnean). Azkeneko Osoko Bilkuran esan zenez, txosten honen egituraren eta edukien zati bat berriz egin da. Horretarako, datuen iturri berrien erabilera jo da. Eta ohiko eran erabilitako iturri estatistikoekiko gehiegizko mendetasuna ere gutxitu da (kasu horretan, 2008ko datuei buruzko Eustaten Gizarte Zerbitzuei eta Gizartekintzari buruzko Estatistikan oinarrituta). Horregatik, aldaketa horien ondoren –Kontseiluaren beraren izenean, lehen Gizarte Ongizatekoa eta orain Gizarte Zerbitzuetakoa, zein horren edukietan- txostenak izena aldatu du eta orain GZEKren I. Txostena deitzen da.

Iturri dagokienez, informazioko bi elementu jasotzen dira, kualitatiboagoak, honako jatorri hauekin:

1.- *Herritartasuna*: Gizarte Zerbitzuen egoeraren herritarren pertzepzioari buruzko inkestaren emaitzak (1200 pertsona ingururen iritzietan oinarrituta).

2.- *Adituak*: Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko inkestaren emaitzak (Gizarte Zerbitzuetako Adituen – Teknikoen Panela, 133 profesionalen iritzietan oinarrituta).

Gainera, Eranskinaren Txostenean jasotzen dira datu kuantitatiboak, era xeheagoan. Txostenari “*Aholkuen*” zatia falta zaio, txostena duela egun gutxi jaso baita. “*Informazio horrekin, aholkuen proposamen bat garatuko dute, hori baita Kontseiluak egin behar duena araudiari jarraiki, eta hurrengo Kontseiluan aztertu eta onartuko dira*”. Beste aldetik, proposamena bidaliko zaie –zenbait aste barru, txostena aztertzeko denbora nahikoa izateko, eta hurrengo Kontseiluaren aurretik tarte nahikoarekin ere- Kontseiluko kide guztiei, horiek beren ekarpenak egin ahal izateko. Azkenik, ondoriozko dokumentua hurrengo Kontseiluan aurkeztuko dena da.

10. puntua.- Euskadiko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen 2011rako deialdiari buruzko informazioa.

• **Alfonso Gurpeguik** esan du 2010eko amaieran GZEKren deialdia bidali zenean agindu baten zirriborroa bidali zela, eta hori gaur egun EHAAr argitaratu da jadanik: 2011ko urtarrilaren 10ekoa.

Eskaerak egiteko epea otsailaren 11ra arte zabalik dagoela azpimarratu du eta informazio-sistemak antolatu direla (galderetarako postontzi bat eta galdera ohikoenen atal bat web-orrian; informazio-telefono bat ere) eta deialdiari atxikitzeko aukera duten gizarte-erakundeetara eta -entitateetara zuzenduta azken egunotan hiru informazio-saio egin dira, Lurralde Historiko bakoitzean bana. Funtsezko nobedadeak gogorarazi ditu, informazio-saio horietan egin zen bezala:

1.- *Izapidetze telematikoa*: agindu horretan jasotzen da, eta hori erabiltzera bultzatzen du ebaztea erraztu eta emakida-epeak azkartuko baititu.

2.- *Droga-mendetasunen eremuaren helburua*: arloetako dekretua onartu ondoren (2) eta horren ondorioz Droga Gaietako Zuzendaritza Osasun eta Kontsumo Sailera pasatuko da. Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren aginduan droga-mendetasunen prebentzioarekin zerikusia duen guztia baztertzen da. Dena den, ate bat zabalik utzi da funtsean gizarte esku-hartzearekin zerikusia duen eta droga-mendetasunekin zerikusirik izan dezakeen edozertarako.

3.- *Etorkinentzako edo egoera irregularrean daudenentzako zerbitzu juridikoak*. Hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan, pertsona horiei arreta-sistema berri bat martxan jartzen ari zaienez Immigrazio Zuzendaritza, eta beraz, agindu honen bidez iaz finantzatu ziren proiektu horiek, aurrez ez dute bide hori izango, baizik eta diru-laguntzena ez den beste bidea izango dute (nolanahi ere, bere jardunen artean honako hau barne har dezaketean esku-hartze proiektu globalak aztertuko dira, baina inolaz ere arreta juridikoan huts-hutsik arreta jartzen duten proiektuak).

Bestalde, iazko deialdiarekiko balioespen bat egin da, eta deialdian aurkeztu diren gizarte-entitateetara bidali dira horren ondorioak.

(2). **Idazkaritzako oharra**: Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2001 dekretuari buruz ari da, EAeko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien funtzioak eta arloak zehazten dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena (2011-1-21 EHAA).

Ondorio horiek, Kontseiluko kideei helarazi ez bazaizkie ere, berdin-berdin bidal daitezke eskatuz gero. Izandako hobekuntzak gorabehera (epeak aurreratzean batez ere), entitateak oraindik ere kezu dira ebazteko eta ordaintzeko epeak direla-eta. Gai hori Sailaren kezka bat da eta epeak murrizteko lanean dihardu.

• **Gizarte Gaietako sailburuordeak** hitza hartzeko txanda bat hasi du:

• **Natalia Díez-Caballerok**, Familia Batzorde Iraunkorreko ordezkariak, Sailak “justu-justu gainditzen duela” uste du diru-laguntzen ebaluazioan. Teknikoek ebaluazioan lortu dituzten 34 jardunbide egokiei buruz galdetu du, eta entitateei bidaliko zizkietela esan zen. Interesgarriak izango lirateke gida edo adibide gisa (gero gauzatu edo ez). Eta 2011ko diru-laguntzei dagokienez, nolabaiteko eskuliburu bat egotea ontzat jo zuen (proiektuak, memorien justifikazioak eta abar garatzeko zenbait fundaziok egiten dutenaren erara) dekretuaren eta diru-laguntzen araudiaren aldaketa hori ulertu eta horretara egokitzen laguntzeko erakundeei.

• **Juan Ibarretzek**, Gizarteratze Batzorde Iraunkorreko ordezkariak, eskaera-epeak eta horientzako erantzun-epeak murrizteko egiten ari diren ahalegina aitortuta ere, epeen gai hori sektorearen kexa izaten jarraitzen duela uste du “*hori baita gordiar korapiloa*”: programak eta ekimenak etorkizuneko ebazpenen kontura hasi behar dira. 2010eko aginduaren hasierarako jadanik zenbait ekarpen egin dituztela azaldu du; eta berretsi badituzte ere 2011n ere ez dira kontuan hartu:

- 1.- *Lurraldez gaindiko izaera*: gehiegi balioesten da (ebaluazioan jasota azaltzen da).
- 2.- *Urteaniztasuna*: ez da kontuan hartu behar eta oraindik ez da ulertzen, baina proiektu batzuetan garrantzitsua da (urterokoak zatitu beharko lirateke). Hainbat urtetarako proiektu horien kasuetan eskaera hori artatzeak urtero proiektu berarengatik eskatzea saihestuko luke.
- 3.- *Zenbait gastu onartzea*: onargarriak izan beharko liratekeen zenbait gastu ez dira onartzen, esaterako finantzakoak (Administrazioen berezkoak diren diru-laguntzako ordainketen atzerapenetik eratorritakoak).

• **Miguel Angel Ruiz**, droga-mendetasunen prebentzioaren eta gizarteratzearen eremuan lan egiten duten GKEen ordezkariak, Droga Gaietako zuzendariaren presentzia baliatu nahi du, eta agindu horren prebentzioko programen bazterkeriaren harira, Osasun Sailak deitutako agindua noiz atera nahi duen galdetu nahi dio, orain antolaketa-aldaketaren ondoren (bere egutegia egin ahal izateko).

• **Celina Peredak**, Droga Gaietako zuzendariak, Osasun Sailera aldatzeak zer agindu dituen baloratzea ekarri duela erantzun du, eta Osasun Sailak izango lituzkeen hiru deialdiak elkartzen ari dira orain:

- 1) HIESaren planetik zetorrena;
- 2) Saitetik bertatik zetorrena, osasun publikoko arloan, prebentzioa eta osasunaren sustapena ere biltzen dituen;
- 3) droga-mendetasunena, osasunaren prebentzio-sustapen horren ildoan doana.

Agindu bakarra egiteko aukera izan bezain laster jakinaraziko da, deialdiak hilabete honetarako aurreikusita dituzten Batzorde Aholkularietatik hasita. Dena dela, droga-mendetasunen eremuan, gizarte-bazterkeriarekin eta komunitateko prebentzioarekin zerikusia dutenak, hau da, drogen eremutik egindako komunitate-ekimenak Gizartekintza Sailaren Aginduan txerta daitezke.

• **Juan Carlos Solak**, Elkarteanekoak, % 20ko baterako finantziazioko gaia azpimarratu nahi du, elkartze-mugimenduak ez duela onartzen uste baitu. “*Lurraldeko entitateek ez dugu beste diru-sarrerarik*”. Lurralde esparruan nahiko arazo badutela azpimarratu du, gainera lurralde esparruaren gainetik Federaziotik ekarpenak egin behar izateko.

Baterako finantziazioak zailtasun ugari dakarzkie beren proiektuak aurrera ateratzeko, "horregatik ahalegin bat egin beharko litzateke eta dekretutik kendu".

- **M. José Canok**, FEDEAFESekoak, Juan Carlosek esandakoa erabat babesten eta berresten du, eta bere iritziz "federaziook ito gaitzke ezin baitugu foru-aldundira eta abarrera jo eta % 20ari buruzko hausnarketa egin behar dugu; beste aldetik funtsak bilatzen saiatzen ari garelako, baina egoera nahiko zaila da, eta elkarteei ere ezin diegu eskatu beren baliabideak nahiko mugatuta baitituzte".

11. puntua.-GZEK-ko ordezkaritza baten izendapena kontseilu hau "Immigrazio Foroan" ordezteko.

- **Alfonso Gurpeguik** Euskal Autonomia Erkidegoko Etorikinen Integrazio eta Gizarte Partaidetzarako Foroaren Lehendakariaren eskaera azaldu du. Organo horren erregulazioak (3) GZEK-ko ordezkaritza bat Foro horretara joateko gaitzen du, eta hori izendatzeko eskatzen da.

Beraz, ordezkaritza horrek Immigrazio Foroaren jardunei buruz jakinaren gainean jarriko du GZEK, eta GZEK-ko idazkaria izendatzeko proposamena egiten da mahaitik (egun Angel Manerok betetzen duen kargua), bi organoen artean informazio-trukea errazteko.

- **Fernando Fantovak** Kontseiluari galdetu dio idazkariak Kontseilua ordezkatzea egoki ikusten ote duen edo beste proposamenik ba ote dagoen.

- **Jon Etxeberriak** ez du arazorik ikusten eta **Txema Odriozolak** adierazi du "planteamendua koherentea dela eta proposamena babesten duela".

Beste ohar edo proposamenik ez dagoenez, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak aurkeztutakoa aho batez onartu da. Horrenbestez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluko idazkariak organo hau ordezkatuko du *Euskal Autonomia Erkidegoko Etorikinen Integrazio eta Gizarte Partaidetzarako Foroaren* Osoko Bilkuran.

12. puntua.-GZEKn ordezkaritza izateko beste eskaera bat.

- **Alfonso Gurpeguik** Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialaren idazkia ezagutzera eman du, eta horren bidez Elkargo horrek Kontseiluan ordezkaritza bat izateko eskatzen da, eta GZEK arautzen duen 124/2009 Dekretuaren 2.3 artikulua ematen duen aukera aipatzen du:

3.- Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aparte utzi gabe, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eta Batzordeen erabakiaren arabera, honako hauek bilkuretara joan ahal izango dira, era iraunkorrean edo aldi baterako: gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen babesean sortzen diren beste lurralde-kontseilu eta udal-kontseilu batzuen ordezkaritza, gizarte-ongizatearekin zerikusia duten gaiei lotutako beste kontseilu batzuen ordezkaritza, eta arlo horretan duten esperientziagatik eta jakintzagatik Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluentzat baliagarriak izan daitezkeen beste pertsona, erakunde eta elkarte batzuk. Ordezkaritza eta pertsona horiek ez dute botorik izango bileretan.

Ikuspegi horretatik, Osoko Bilkuretan hitzarekin baina botorik gabe parte hartzeko Psikologoaren Elkargoko Kontseiluaren eskaera onartzen ote duen erabaki behar du Kontseiluak.

(3). **Idazkaritzako oharra:** 200/2002 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorikinen Integrazio eta Gizarte Partaidetzarako Foroa sortzen duen arautua (2002-09-16ko EHAA) azaroaren 9ko 213/2004 Dekretuak (EHAA 2004-11-19) aldatu duena

- **Gotzon Villañok** zehaztu du eskaera Bizkaiko Psikologoek Elkargoak egin duela eta Euskadikoak egitea da logikoena. Bere ustez “beste elkargo batzuek egiten duten bezala, ados jarri behar dira, ordezkari bakar bat izateko”. Gero, beste lurraldeetako elkargoek gauza bera eskatzea eta GZEK-k gonbidatutako kide gehiegi izatea saihesteko.

GZEK-ko Idazkaritzatik adierazi da, benetan, GZEKn parte hartzeko Kontseiluaren onemenaren berri emanez Bizkaiko Psikologoek Elkargoari bidaliko zaion idazkian onemena ez zaiola Elkargo horri bakarrik planteatzen azpimarratuko zaie, hiru lurraldeetako psikologoek elkargoen multzoari zabaldu baizik, eta horiek erabaki eta bidaliko dute GZEKra ordezkari bakarra (idazkiaren kopia bana bidaliko zaie Arabako eta Gipuzkoako Elkargoei).

Objekziorik ez dagoenez, Bizkaiko Psikologoek Elkargoak aurkeztutako eskaera onartu du Kontseiluaren Osoko Bilkurak GZEKren Osoko Bilkurako bileretan parte hartzeko, hitzarekin baina botorik gabe, baina etorriko den ordezkaria Euskadiko hiru Psikologoek Elkargo Ofizialek aukeratua eta hiruen ordezkari izateko baldintzapean.

13. puntua.- Galde-eskeak.

- **Txema Odriozolak** bere “erregua” berretsi du GZEKren bilera horiek hasteko ordua berriz pentsatzeko, kanpotik datozen pertsonak goiz jaiki behar baitute eta horietako batzuk “adineko pertsonak” dira; hori dela-eta bilerak berriz 10:00etan hasteko eskatzen du.
- **Fernando Fantovak** erantzun du gai-zerrendaren irakurketak –oso luzea- ordua aurreratzea bilatzea dakarrela, baina eskaera aztertu daiteke.

Objekziorik ez dagoenez, GZEKren Osoko Bilkurak 10:00etan hasteko proposamena onartu da.

- **Alfonso Gurpeguik**, azkenean, bere Zuzendaritzan egin den lanaren berri eman du (edizioaren eta horniketaren ardura dagokionari) *Desgaitasuna duten pertsonentzako Aparkatzeko txartel* berriei buruz. Desgaitasunaren eremuko pertsona eta entitateen, udal batzuen eta abarren eskariak jasoz, material holografikoa jasotzen duen txartel bat diseinatu da, eta horrek saihestuko du txartela behin eta berriz faltsutua izatea. Urtearen hasieratik hasi dira banatzen udaletara.

Galde-eske gehiagorik ez dagoenez, 2011ko urtarrilaren 28ko 10:45ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

OE.
Jarduneko LEHENDAKARIA